

ATARIKO PROBA

1.HE

1.- *Mendate asko itxita dagoela entzun dut irratian.*

- a) elurrarengatik
- b) elurrik
- c) elurretatik
- d) elurrari

2.- Zein da ZUZENA?

- a) Ez zaitetz jo txakurra, ez du inolako errurik eta!
- b) Hurbildu zaitetz hobeto ikusteko!
- c) Gorde zaitetzte tresna guztiak biltegian!
- d) Begira zaitetzte alde bietara!

3.- *Etxeko ordenagailua lanekoa azkar dabil.*

- a) hainbeste
- b) bezalakoa
- c) bezain
- d) hain

4.- *Gaur goizetik da lantokira.*

- a) jarri
- b) bultzatu
- c) erabaki
- d) abiatu

5.- *Ni kontra egon naiz beti.*

- a) indarkeriarik
- b) indarkeriaren
- c) indarkerian
- d) indarkeriatik

6.- *Txikitan munduko hiriburuen izenak buruz*

- a) zekiten.
- b) nituen.
- c) nekizkien.
- d) zeuzkaten.

- 7.- *Gasteizko gaueko giroa aukera izan genuen.*
- a) ezagutzeko
 - b) ezagutzeaz
 - c) ezagutzen
 - d) ezagutzera
- 8.- *Estropadetan asko egon da arraunlariak animatzen.*
- a) egonaldi
 - b) ikusle
 - c) jaialdi
 - d) oihartzun
- 9.- *..... oportetan egongo naiz.*
- a) Apirilaren 16etatik 22etara
 - b) Apiriletik 16atik 22tara
 - c) Apiriletik 16etatik 22ra
 - d) Apirilaren 16tik 22ra
- 10.- *Tunela delako, ezin dira pasatu bost metro baino ibilgailuak.*
- a) estuena / gehieneko
 - b) estuagoa / gehiegiko
 - c) estuegia / gehiagoko
 - d) estuena / gehiegiko
- 11.- *Autoa utzi eta eskerrak ere ez eman.*
- a) zenidan / zidan
 - b) zigun / genizkion
 - c) zizuen / ziguten
 - d) zizkien / zizkigun
- 12.- *Begiratu liburuak eta hartu komeni zaizkizunak, nik geratzen hartuko ditut.*
- a) direnak
 - b) denak
 - c) direna
 - d) diren

- 13.- *Liburu hau ezin du ulertu, pertsonaia gehiegi du.*
- a) norbaitek
 - b) norbaiti
 - c) edozeinek
 - d) inor
- 14.- *Lan handia egin arren, emaitza eskasa izan dute.*
Zein da esaldi horren PAREKOA?
- a) Gogor aritu dira lanean, eta ondorioz, emaitza ona lortu dute.
 - b) Lan handia egin dute, hala ere ez dute emaitza onik lortu.
 - c) Nahiz eta lan handirik egin ez, emaitza ona lortu dute.
 - d) Emaitza txarra lortu dute ez dutelako lanik egin.
- 15.- *Gogoia izan behar duzu bero honekin lantokira oinez!*
- a) etortzea
 - b) etortzeko
 - c) etortzen
 - d) etorriz
- 16.- *Solairu behera erori zen txakur gaixoa.*
- a) hortik
 - b) horra
 - c) horretatik
 - d) horretako
- 17.- *Hau zorte txarra! Paperontzira bota paperak, eta, gero, nagusiak eskatu*
.....
- a) zizkien / zizkieten.
 - b) ziguten / zigun.
 - c) zenidan / zidan.
 - d) nituen / zizkidan.
- 18.- *..... parrandaren bat egingo dugu, baina ez*
- a) Herenegun / askotan.
 - b) Beti / noizbehinka.
 - c) Noizbehinka / egunero.
 - d) laz / inoiz.

- 19.- *Sartu barrura, eguraldia guztiz baino lehen!*
- a) sendatu
 - b) okertu
 - c) bildu
 - d) kezkatu
- 20.- *Argiketaria goizeko agertu da.*
- a) hamarrak eta bost gutxiagotan.
 - b) hamarretan bost gutxiagotan.
 - c) hamarrak bost gutxiagotan.
 - d) hamar eta bost gutxian.
- 21.- *Lasai egon, nahi duzunean alde egin eta.*
- a) dezake / dezakegu
 - b) zaitezke / gaitetzke
 - c) dezakete / daitezke
 - d) zaitezke / dezakezu
- 22.- Zein da ZUZENA?
- a) Zaila da jakitea zenbat lapurrak izan diren.
 - b) Hainbat dirua gastatu dute etxea konpontzen.
 - c) Lankide gutxiek irakurtzen dute egunkaria.
 - d) Zortzik baietz esan dute eta bik ezetz.
- 23.- *Lan eta aspergarriak guri uzten dizkigu.*
- a) zintzoak
 - b) astunak
 - c) eskuzabalak
 - d) trebeak
- 24.- *Atzo arte ez konpondu apurtu erlojua.*
- a) zitzaizkidan / zidan
 - b) zitzaizkion / zioten
 - c) zidaten / zitzaidan
 - d) zidan / zizkidan

25.- *Mendira igotzen ez ginen gehiegi nekatu, baina arrisku handia zuen lurra bustita zegoelako. Zein da esaldi horren PAREKOA?*

- a) Mendira igotzea ez zen nekagarria izan, arriskutsua baizik.
- b) Nahiz eta lurra bustita egon, mendira igotzea nekagarria besterik ez zen izan.
- c) Mendira igotzea nekagarria izan arren, ez zen izan arriskutsua.
- d) Mendira igotzea nekagarria izateaz gain, arriskutsua ere izan zen lurrarengatik.

26.- *..... gaizki begiratu dit.*

- a) Biltegiko argia itzaltzeko esaten nion bakoitzean
- b) Biltegiko argia itzaltzeko esan diodanean
- c) Ezin dela biltegiko argia piztuta utzi esaten diodan guztietan
- d) Ezin zela argia piztuta utzi esan nion arte

27.- Zein da ZUZENA?

- a) Gaur goizean bilera bat egiten genuen.
- b) Gidatzen dudanean, telefonoak jo dit.
- c) Aurten egunero joango nintzen igeri egitera.
- d) Askotan ikusten nuen zure anaia autobus geltokian.

28.- *Inguru hauek oso aproposak dira*

- a) mendizaleentzat.
- b) mendizaleetara.
- c) mendizaleei.
- d) mendizaleez.

29.- — *Idazkariari eskatu nizkion agiri batzuen bila nator.*
— *A bai,*

- a) alkatea eguneko arazoak konpontzen ari da.
- b) alkateak ordaintzeko hartuko dizkizut.
- c) alkatearengan konfiantza osoa dute.
- d) alkateak sinatzea besterik ez da falta.

30.- *Ezin baduzu bakarrik, beste lankideren batek*

- a) egiten / lagundu behar izango dizu.
- b) egingo / lagundu beharko dizu.
- c) egin / lagundu beharko dizu.
- d) egingo / lagunduko beharko dizu.

- 31.- *Udaltzainaren aurrean ez zer erantzun eta lotsaturik*
- a) gindoazen / genbiltzan.
 - b) neukan / zekien.
 - c) nenbilen / zegoen.
 - d) genekien / geunden.
- 32.- *parean aparkatu du.*
- a) Zubiari
 - b) Zubiak
 - c) Zubiaren
 - d) Zubitik
- 33.- Zein da ZUZENA?
- a) Laster lagun arteko afaria dugula gogoratu dugu.
 - b) Azaldu diot zer erosi nahi dudala baina ez dit ulertu.
 - c) Badakite ezin da lantokian erre.
 - d) Lasterketa irabaztea zaila da konturatu naiz.
- 34.- *Urriko zubia hartu ala ez erabakitzeke orduan, gutxi egon da udaleko langileen artean.*
- a) zalantza
 - b) froga
 - c) bezero
 - d) abantaila
- 35.- *Aterkia hartzea ahaztu eta lanekoek utzi bat.*
- a) zitzaion / zioten
 - b) zizkien / zien
 - c) zien / zieten
 - d) zitzaien / zuen
- 36.- *Bederatziak baino lehen gela garbitzera ez sartzeko esan nien; hala ere, hoteleko garbitzaileak ate joka ari dira ordua baino lehen. Zein da esaldi horren PAREKOA?*
- a) Bederatziak baino lehen sartu ziren gela garbitzera, orduari begiratu gabe sartzeko esan nien eta.
 - b) Nahiz eta ate joka ari, esandako ordua errespetatu dute garbitzaileek.
 - c) Hoteleko garbitzaileak ate joka ari dira, bederatziak baino lehen etortzeko esan bainien.
 - d) Garbitzaileei bederatzietatik aurrera sartzeko esan nien arren, lehenago etorri dira.

37.- Zuzendariak alde egin du gaurko bileran.

- a) langileetako
- b) langileen
- c) langileengan
- d) langileak

38.- Ez du inoiz gogoratzen zer ordutan geratzen

- a) garen.
- b) garela.
- c) garena.
- d) gara.

39.- Esan duzunak ez du inolako

- a) zentzurik.
- b) egoerarik.
- c) aholkurik.
- d) bazterrik.

40.- Ospitalean ohe bakarreko gela batera eraman

- a) zitzaizkidan.
- b) ziguten.
- c) zizkigun.
- d) ninduten.

41.- Jarraitu elkarrizketa:

— *Eramango al didazu kutxa hau sarrerara?*
—

- a) Baita zuri ere!
- b) Bai, bai, halaxe da!
- c) Ezta pentsatu ere!
- d) Ez, baina estimatzen dizut!

42.- *Liburuaren fitxa, berehala etorri zait liburuzaina laguntzera.*

- a) egiten hasi naizenean
- b) egin arte
- c) egiten ari nintzen
- d) egiten dudan guztietan

43.- *Nik gutxi ordaintzen dut autoaren aseguruia; nire arrebak,, diru asko ematen du horretan.*

- a) baita ere
- b) beraz
- c) horregatik
- d) ordea

44.- *Zorionez, autoaren gorpila ez zait hondatu.*

- a) ugari
- b) guztiz
- c) nahiko
- d) hain

45.- *Mesedez, ez hain altu hitz egin!*

- a) dituzue
- b) zaitezkete
- c) ezazue
- d) ditzakezue

ORDEZKO GALDERAK

46.- *Askoren helburua bizitzan diru asko izaten da.*

- a) irabaztera
- b) irabazten
- c) irabaztea
- d) irabazteko

47.- Jarraitu elkarrizketa:

— *Medikuak errekupeazioa luzea izango dela esan dit.*

—

- a) Hori da eta!
- b) Estimatzen dizut!
- c) Zure partetik!
- d) Eutsi gogor!

48.- *Gure amak ahizpak dira, beraz gu gara.*

- a) errainak
- b) lehengusinak
- c) koinatak
- d) suhiak

ATARIKO PROBA - 1.HE

ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	A	2.	B	3.	C	4.	D	5.	B
6.	C	7.	A	8.	B	9.	D	10.	C
11.	B	12.	A	13.	C	14.	B	15.	B
16.	C	17.	D	18.	C	19.	B	20.	C
21.	D	22.	D	23.	B	24.	C	25.	A
26.	B	27.	D	28.	A	29.	D	30.	C
31.	D	32.	C	33.	A	34.	A	35.	A
36.	D	37.	B	38.	A	39.	A	40.	D
41.	C	42.	A	43.	D	44.	B	45.	C

ORDEZKO GALDERAK

46.	C	47.	D	48.	B
-----	----------	-----	----------	-----	----------